



KOMUNIKABIDEAK ETA LEGEA

BRIEF SUMMARY OF ACTIVITY

Partaideek komunikabideen inguruko legeriaz jardungo dute, zenbait epaitegiern kondena edo onartu gabeko kasuak aztertuz.

AIM OF THE ACTIVITY

Badaude arau moral eta etikoak zeinak kazetarien informazioa emateko modua erregulatzen duten zenbait gairi dagokienez, hala nola komunikabideei loturiko legeriak, baina kode etikoek eta irrati-komunitarioen baloreek ere hainbat muga ezartzen dituzte. Garrantzitsua da kazetariarentzat horiek ezagutzea. Hainbat adibide esanguratsu: difamazio legeak esaterako pertsona baten izen ona edo ospea mantentzeari eragiten dio. Kazetari eta esatariak horiek ezagutu behar dituzte inoren izen ona zikintzea ekiditeko. Erakunde legal batek edo bizi den norbanako batek auzitara jo dezake difamazioa dela medio, aipatua izan bada edo arrazoitu ahal diren zenbait datu eman badira, hala nola kokapena, deskribapena, argazkien erabilera, irudiena edo bestelako informazioa zabalduz, pertsona hori identifikatzeko balio dezaketenak. Inpartzialtasuna eta bidezko estaldura. Ba al dago alde ezberdinetako arrazoibideak aurkezteko eskaririk egun zure herrialdean ematen ari diren eztabaiden inguruan? Martxa diren prozesu judizialen inguruko informazioa mugatzen al dute epaitegiek? Eta abar.

EXPECTED OUTCOMES

Partaideak gai izango dira jakintza eta trebezia erakusteko honakoez: Irrati-etxe komunitarioen erregulazio eta legeriaren inguruan. Ikerketa sendoen eta arriskuak mugatzearen inguruan. Inpartzialtasunaren garrantziaren inguruan, berriak zabaltzerakoan.

INFORMATIONS FOR TRAINERS

EXPERIENCE AND SKILLS REQUIRED

Hezitzaileak trebea eta ongi informatua behar du izan berriak ematearen eskakizun legal eta mugei dagokienez, adibide egokiak eramanaz prestatuta eta balizko galderei erantzuna emateko gai izanez. Garrantzitsua da hizkuntza eta argudio legalak sinplifikatzea adibide ezberdinak emanez.

INFRASTRUCTURE, SETTING, RESOURCES

Erabiliko diren adibideen arabera, bideo proiektioetarako prestatu beharko da gela. Audioa ezinbestean erabili beharko da.

LENGTH

60 minutu.

MATERIALS

Kasuen azterketen grabazioak (hautazkoa), audio/bideo erreproduzitailea.

DESCRIPTION

HOW THE ACTIVITY SHOULD TAKE PLACE

Hezitzaileak irрати-etxeen aurka epaitegietan eman diren kasu edo salaketen bizpahiru adibide prestatu behar ditu, onartuak zein atzera botatakoak. Banan-banan erakutsi behar dira, bakoitzaren testuingurua azalduz (edo jatorrizko grabazioa erakutsiz oraindik ere eskuragarri badago), eta esplikatu zein izan zen emanaldiaren atal gatazkatsua, horren inguruko iritzia eskatuz partaideei eta amaitzeko epailearen edo epaitegiaren erabakiaren inguruan eztabaidatu. Horixe bera egin adibide bakoitzarekin. Saioari bukaera emateko azaldu zein diren oinarritzko gidalerroak auziak eta lege-hausteak ekiditeko, egin beharrekoak eta egi behar ez direnak (esaterako, ez esan inoren kontrakorik horren frogarik izan ezean), eta ganorazko ikerketaren garrantzia nabarmendu, horrekin irratsaioan emaniko informazioa sostengatu ahal izateko.

RECOMMENDED MAX. NUMBER OF PARTICIPANTS AND TRAINEES TO TRAINERS RATIO

10 (4 hezitzaileko ikusmen urritasuna edo ikasteko zailtasunak dauzkaten partehatzaileekin).

RISK AND POSSIBLE ADAPTATION

Ariketa hau estatu bakoitzeko legeriaren arabera prestatu behar da, ezberdinak izan baitaitezke.

VARIATIONS

TIPS FOR TRAINERS

Paperez edo emailaz banatu irratiz hedatzearen muga legalei buruzko laburpen bat, eta baita lege-urraketak ekiditeko zenbait gidalero ere. Adibide andana prestatu, eta jarduera burura eraman eztabaida modura, motelegia izan baitaiteke osterantzean.

PARTICIPANTS

Saiatu aktibo mantentzen, euren iritziaz zein adierazpen askatasunaren inguruan galdetuz.

ANALYSIS AND EVALUATION

Partaideek aipa al ditzakete komunikabideen hedapenari eragiten dieten gutxieneko legala eta mugak? Gai al dira auzi legalak ekiditeko neurriak aipatzeko?

SCHEDULING

Noiznahi, hobe ikerketa moduluaren ostean.